

Saharak berri?

Brahim Gali izendatu dute presidente saharar ordezkariak, botoen %73rekin. Atzerrian aukeratu dute, aberria Marokok okupaturik baitute. Aspalditik eta luzerako.

Izan ere, zaharrak berri dira Saharan. Su-etena sinatu zenetik (mende laurdena joan da) egonean dago egoera. Egia da: horren erantzukizuna ezin da berdin banatu alde bien artean. Maroko da immobilista; Frente Polisarioa geldidago. Normala ere bada: denbora haren alde doa, eta sahararren kontra. Luza-tzea planteamendu ona da Marokorentzat, txarra Sahararentzat.

Horrexegatik egiten zait hain ulergaitz Polisarioak (eta ingurukoek) estrategia antzuarri eustea. Urteroko liturgia errepikatu, besterik ez da egiten. Urtero delako aurtan, NBEk Minurso-ren misioa luzatuko du, baina erreferenduma ez da egingo. Sahararen onerako beste edozein erabaki betatu egingo du Frantziak, eta Espainia isilik izango du ondoan, Segurtasun Kontseiluan eroso eserita. Zergatik ez? Debalde dute eta. Frantzian ia ezagutu ere ez da egiten Mendebaldeko Sahara, eta Espainian inork ez du Sahararen aldeko lan politikoko koordinaturik egiten. Keinuak bai, asko; lan politikorik ez, ostera. Elkartasun humanitariokoa bai, adierazpenetakoa zer esanik ez, baina Espainia



Mikel Basabe

IRAKASLEA

Ulergaitz egiten zait Polisariok (eta ingurukoek) estrategia antzuarri eustea. Urteroko liturgia errepikatu, besterik ez da egiten

gatazkaren konponketan inplikaturiko duen lan politikorik ez da egiten. Eta behar da. Parlamentu autonomikoetan onartzen da Sahararen aldeko makina bat adierazpen eta legez besteko proposamen, baina hortxe geratzen dira, asko jota hedabide lokaletako albiste

labur bihurturik. Gezurra badirudi ere, ia parlamentu guztietan daude Sahararen aldeko taldeak, baina ez daude koordinaturik. Gezurra badirudi ere, Madrilgo Kongresuan ez da Sahararen aldeko ekimen politikorik eztabaidatu ere egiten.

Espainiako printze eta diktadurako estatuburu zela, Juan Carlos I.a Borboikoak Sahararen deskolonizazio legea sinatu zuen. Harrezkero –eta horregatik, agian?–, Espainia behin ere ez da ahalegindu Sahararentzat konponbide justua bilatzen. Portugalen beti egon zen elkartasuna Ekialdeko Timorrekin. Elkartasun soziala eta politikoa. Espainiako Erresuman inork ez du Sahararentzat horrelakorik bultzatu. Portugalen ez bezala, alderdi handien babes barik dago Sahara, hedabide nagusien laguntzarik gabe.

Horrela baino ez daiteke ulertu Palestinak enbaxadorea izatea Espainian, eta Mendebaldeko Saharak ez.

Dagoela argi: Saharak zaharrak berri izango ditu, Espainiaren elkartasun politikoa lortzen ez badu. Hori landu egin behar da, baina. Koordinatu, helburuak jarri. Polisarioak benetan gura badu erreferenduma, Espainiaren jarrera politikoa aldatu beharra dauka, horren ondoren baino ez baita aldatuko, aldatzekotan, Europar Batasunarena. ■

27zapata
Astoak aspaldi jan zun kontzientzia,
berdia zalako

Imanol Epelderen bloga www.argia.eus/blogak/imanol-epelde/



Txirindularia bokazioz, korrikalaria afizioz, irakaslea ofizioz. Literatura, hezkuntza eta osasuna jakingai.